



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko ekainaren 4an

61 ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 273. artikulua aldatzeko buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua. Horren bidez, Gobernuak Nafarroan duen ordezkartza premiatzen da akordio bat sina dezan etorkinen elkarte mugimendurekin (5. or.).
- Mozioa, Euskal Herriarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak deitoratu egiten du Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren jarrera, Urbasa-Andiako natur parkea ez baitu natur eremu babesgarri gisa errespetatu (7. or.).
- Mozioa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua. Horren bidez, iritzi publikoari jakinarazten zaio Nafarroako Parlamentuak uste osoa duela herritarren parte-hartzea demokraziaren funtsezko zutabeetako bat dela (8. or.).
- Mozioa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da kokaleku egokiagoren bat bila dezan egiteko den espetxearentzako (9. or.).
- Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da meningitisari buruzko informazio kanpainak egin ditzan (10. or.).
- Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Gazteentzako sexu-hezkuntza eta -laguntzari buruzko eskualdeko plana egin dezan (11. or.).
- Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da tutorearen figura arautu dezan MIR sistemaren barrenean prestatzen ari diren espezialistentzako (13. or.).

—Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da “Mikel Larumbe” osasun ikerketarako bekak berraztertu eta, gehienez ere hiru hileko epean, erabaki dezan beka hori nori eman (14. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina, Oinarrizko Osasun Laguntzan “historia klinikoak” deiturikoak irekitzeari buruzkoa (15. or.).
- Galdera, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina, norbanakoen osasun txartel kopuruari buruzkoa (15. or.).
- Galdera, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina, babes ofizialeko etxebizitzaren moduluen prezioei buruzko zenbait konturi buruzkoa (16. or.).
- Galdera, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina, Goñibarreko parke eolikoa abian ez jartzeari buruzkoa (16. or.).
- Galdera, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina, “Gestión Ambiental - Viveros y Repoblaciones” enpresak abeltzaintza-ustiategien gainean eginiko azterketa lanari buruzkoa (17. or.).
- Galdera, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina, “Mikel Larumbe” osasun ikerketarako bekak ez emanari buruzkoa (18. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:

- “Inbentarioaren kudeaketa eta kontabilitate publikoa” izeneko sistema informatikoa esleitzeko proposamena (19. or.).
- Nafarroako Foru Komunitateari buruzko inkesta orokorra egiteko laguntza teknikoaren zerbitzu bat esleitzeko proposamena (19. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 273. artikulua aldatze-ari buruzkoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maitzaren 28an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Biltzarrak, 2001eko maiatzaren 24an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 273. artikulua aldatzeari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori 2001eko apirilaren 20ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru

Legearen 273. artikulua aldatzeari buruzko Foru Lege proposamena ohiko prozeduraz bideratzea.

Bigarrena. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epe bat irekiko da, 2001eko ekainaren 22ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maitzaren 28an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Biltzarrak, 2001eko maiatzaren 24an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposa-

men hori 2001eko apirilaren 20ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen

duen Foru Lege proposamena ohiko prozeduraz bideratzea.

Bigarrena. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Toki Administrazio Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epe bat irekiko da, 2001eko ekainaren 22ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Gobernuak Nafarroan duen ordezkari-tza premia-tzen da akordio bat sina dezan etorkinen elkarte mugimenduekin

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Gobernuak Nafarroan duen ordezkari-tza premia-tzen da akordio bat sina dezan etorkinen elkarte mugimenduekin".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Gizarte Gaietako Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentari-ekin zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Askotarikoa-Batzarre Parlamentuko Taldeko eledun Milagros Rubio Salvatierra andreak, Biltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Gizarte Gai-ekin Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Nafarroako Inmigrazioari buruzko Inkestaren arabera, 2000ren amaieran Europar Batasunetik kanpoko 5000 edo 6000 etorkin bizi ziren Nafarroan, beharrezkoak diren egoitza eta lan baimenak izan gabe. Kopuru hau ziur aski handiagoa izanen da gaur egun.

Halaber, Nafarroan gaur egun badago egiazko lan-eskaintzako egoera bat, etorkinek asetu ahal izateko modukoa, baina, lan eta egoitza baimen egokiak ez dituztenez, ezin zaio egoera horri behar bezala aurre egin, eta horren guztiaren ondorioa da kontraturik gabeko enplegua ugari-

tzen ari dela, horrek etorkinei ekartzen dien guztiarekin: esplotazioa, prekaritatea eta bizi baldintza eta gurikapenei buruzko ziurgabetasuna.

Halaber, etorkinak arauzkotzeko balizko prozesu berri bat hasteari buruzko zenbait zurrumurru ugaritu dira berriki, eta agerian geratu da, batetik, arlo horretan plangintzarik ez dagoela, eta, bestetik, Lan Ordezkaritzak giza eta gauza baliabide urriak dauzkala etorkinak behar bezalako arretaz tratatzeko.

Azaldutakoaren antzeko egoera bati aurre egiteko, 2001eko apirilaren 26an, Gobernuak Valentzian daukan Ordezkaritza eta etorkinen aldeko elkarte-mugimendua bientzat gogobetegarria zen akordio batera iritsi ziren, berriki onetsitako Atzeritarrei buruzko Legearen ondorioen aurkako mobilizazio-kanpaina handi bat izan ondoren.

Akordio horri egoki deritzogun neurrian, Gizarte Gai-ekin Batzordean honako erabaki proposamen hau eztabaidatu eta onets dadila proposatzen dut:

Erabaki proposamena:

1.- "Nafarroako Parlamentuak Gobernuaren Nafarroako Ordezkaritzako arduradunak premia-tzen ditu etorkinen elkarte-mugimenduekin akordio bat sina dezaten, mugimendu hori babesteko. Akordio horrek honako klausula hauek izanen ditu:"

1. Akordioa aplikatzeko lurralde-eremua Nafarroako Foru Komunitatera mugatzen da.

2. Urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoko lehen xedapen iragankorrean aurreikusitako Arauzkotze Prozesuan sarturiko kolektiboa.

Urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoko lehen xedapen iragankorra garatzeko emandako otsailaren 18ko 239/2000 Errege Dekretuaren babesean eginiko arauzkotze-espeditenteak honako irizpide hauei jarraituz berraztertuko dira:

a) Ezezko erantzuna ematen zaien eskabideak irizpideak ahalik zabaltasun handienaz aplikatuz ebatziko dira, otsailaren 16ko 142/2001 Errege Dekretuari jarraituz.

b) Berraztertu eginen dira nahitaezkoa den dokumentazioa ez aurkeztearen eta Administrazioak horretarako eginiko eskakizuna ez betetzearen ondorioz interesatuari egoztekoa den kausa dela medio artxibaturiko eskabideak, egoki den atalean sartuak izan daitezten.

c) Indarreko pasaportetik ez daukatenei dago-kienez, nor bere ordezkari diplomatikoan lortu beharko du dokumentazioa, eta beharrezkoak diren baimenak ezin izanen zaizkie eman aipaturiko frogagiria aurkezten ez duten bitartean. Atzeritarrentzako Bulegoek horretarako behar diren ziurtagiriak eman behar dituzte.

3. Espainiako Estatuan 2001eko urtarrilaren 23a baino lehenagotik egonik dokumentaziorik ez daukatenen kolektiboa.

a) Lan eta egoitza baimenak eskuratzeko eskabideak, prozedura arruntari jarraituz aurkezturikoak, berrikusi eginen dira, 4/2000 Lege Organikoko 31.4 artikuluari jarraituz, baldin eta enplegu-egoera nazionalaren ondorioz ezezko erantzuna eman dien ebazpena izan bada edo 2000ko arauzkotze-prozesuaren barnean aurkeztu badira eta aurreko 2. idatz-zatian sarturik ez badaude. Betiere, eskatzailea 2001eko urtarrilaren 23aren aurretik komunitatean dagoela frogatzen bada.

b) Eskabiderik ez baldin bada aurkeztu, eskatzaileari lan-eskaintza egin bazaio eta komunitatean 2001eko urtarrilaren 23aren aurretik dagoela frogatzen badu, egoitza eta lan baimena eskatu ahalko du.

c) Eskabide hauek aurkezteak lehentasunezko egozketa-prozedura aplikatzea eragotziko du.

d) Lan-eskaintza egin bada, bisa izateko beharretik salbuestea eskatu ahalko da.

e) Salbuespen-neurriak aplikatu ezin izatearen ondorioz bisa beharrezkoa balitz, jatorriko herriko pertsona batek ahalorde bidez hura eskatu ahal izatea aitortuko da.

4. Egozketak.

Abian dauden arauzkotze-prozesuak amaitu bitartean, Segurtasun Indar eta Gorputzek ez dute izapidatuko arauzkotu gabeko egoeran Espainiako Estatuan dauden pertsona atzerritarren aurka egozketa-espediterik, baldin eta kondena-epai irmorik ez badago.

Arauzkotze eskabidearekin zerikusia daukaten dokumentuak faltsutzeagatik prozedura penal batean sartuta dauden atzerritarrak ere ez dira egotziko harik eta epaile eskudunak kondena-epai irmoa eman arte.

5. Elkarte-Mugimenduaren Lankidetzak.

Sinatzaileek ahaleginik handiena eginen dute mafiak eta etorkinek eginiko lanari dagozkion betebeharrak ez betetzearen aurka borrokatzeko. Bi esparru horietan langileek laguntza ematea behar adinako arrazoia izanen da lan eta egoitza baimenak emateko.

Halaber, Komunitatean dauden atzerritarrentzako bulegoetara eta unitatera etorkinak samaldan joatea saihesteko, erakunde sinatzaileek konpromisoa hartzen dute interesdunengandik egonaldia frogatzeko dokumentuak eta eska dakizkiekeen gainerakoak jasotzen laguntzeko, dokumentu horiek gero izapidatuak izateko.

6. Legezko izapidatze-epeak betetzea.

Gaur egun eskueran dauzkan giza eta gauza baliabideek ahalbidetzen duten neurrian, Gobernuaren Ordezkaritzak prozedurak arintzeko ahalegina eginen du, arauk ezarritako izapidatze-epeak bete daitezten bermatzeko; orobat, giza eta gauza baliabide gehiago eskuratzen saiatuko da.

7. Elkarte-mugimenduak eskaera luzatzen dio Gobernuaren Ordezkaritzari administrazio eskudunekin harremanetan jartzeko eta etorkinen alde beharrezkoak diren neurriak har ditzaten haiek premiatzeko; bereziki, lanaren, etxebizitzaren eta bizitza duinerako oinarrikoak diren beharrezkoen arloei dagokienez.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 28an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak deitoratu egiten du Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren jarrera, Urbasa-Andiako natur parkea ez baitu natur eremu babesgarri gisa errespetatu

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak deitoratu egiten du Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren jarrera, Urbasa-Andiako natur parkea ez baitu natur eremu babesgarri gisa errespetatu".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketa aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak jabeldura bat aurkeztu zuen, Nafarroako Gobernuak Urbasa-Andiako Natur Parkean prospekzio-lanak egiteko baimena zergatik eman zuen ager zezan.

Joan den ostegunean, maiatzak 18, eginiko Osoko Bilkuran, kontseilari Marcotegui jaunak erantzun zuen zergatiak zientifikoak izan zirela, Urbasa-Andiako egitura geologikoa ezagutu eta aztertzea, hain zuzen ere.

Halaber, kontseilariak, jarraituriko prozedura azaltzeaz gain, 1.500 zulo inguru egin zirela eta hiru tona eta erdi dinamita baino gehiago erabili zirela berretsi zuen.

Bestalde, kontseilariak onartu zuen baimena zuzenean Hidrokarburoen Zuzendaritza Nagusiak emana zela, jarduera hori "interes nazional eta

onura publikokotzat" izendatua baitzegoen; era berean, enpresa pribatu batek egin zuela jarduera, Nafarroako Gobernu baimenak ematera behartua zegoela eta azterlaneko datuak isilpekoak direla, enpresa kontzesio-hartzaileak baizik ezin dituela erabili, eta, beraz, foru administrazioak eskuratu ezinako datuak direla.

Hau da, argi eta garbi geratu da Nafarroako Gobernuak nafarrenak ez diren interesen zerbitzuan jarri duela Urbasa-Andiako parkea, eta nafar guztiei, oro har, eta parke horren inguruetako biztanleei, zehazkiago, iritzi publikoaren aurrean zorrozki zientifikoa bailitzan agerrarazi nahi den baina argi eta garbi interes ekonomikoak izan ditzakeen jarduera bat jasanarazi diela. Izan ere, aitortu zen bezalaxe, bilatzen dena hau da: Urbasa-Andiako egituraren petrolio edo gas metatua ote dagoen jakitea.

Bestalde, kontseilariak berretsi zuen lanek xede zutela, funtsean, ez tandem bitartez mugimendu sismikoak sortaraztea eta horiek neurtzea eragindako uhinen intentsitate eta abiaduran oinarrituz. Mugimendu horiek argitasun osoz somatu zituzten inguruetako biztanleek, baina ez zitzaizkien argibiderik eman haien zergatiari buruz, harik eta, azkenean, horren berri prentsaren bidez izan zuten arte. Jarduera horiek isilpean egin nahi izana gauza nabarmena da, Urbasa-Andia mendietako Patronatuari ez baitzitzaien egitekoak ziren jardueren inolako berririk eman. Egoera hori aipaturiko patronatua osatzen duten udalerriek beraiek salatu zuten. Hori bereziki larria da, eta prospekzioak egitean izandako benetako asmoei buruzko zalantzak eragiten ditu.

Hori guztia dela-eta, gure taldeak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilari Marcotegui jaunaren jarrera deitoratzen du, ez baitu errespetatu Urbasa-Andiako Natur Parkea babestu beharreko natur gune gisa; izan ere, bertan hiru tona eta erdi lehegailu baino gehiago erabiliz prospekzio-lanak egin daitezkeen utzi du, eta ez dio Urbasa-Andia mendiko Patronatuari alde aurretik lan horiek egitera zihoazela jakinarazi, nahiz eta indarreko araudiak eta oinarri-oina-

rrizko sen onak horretara behartzen duten. Eta hori ageriko errespetu falta da patronatu horretako kideekiko eta horiek ordezkatzan dituztenekiko.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 21ean.

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Mozioa. Horren bidez, iritzi publikoari jakinarazten zaio Nafarroako Parlamentuak uste osoa duela herritarren parte-hartzea demokraziaren funtsezko zutabeetako bat dela

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, iritzi publikoari jakinarazten zaio Nafarroako Parlamentuak uste osoa duela herritarren parte-hartzea demokraziaren funtsezko zutabeetako bat dela".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Askotarikoa-Batzarre Parlamentuko Taldeko eledun Milagros Rubio andreak jarraian azaltzen duen mozioa izapida dadila eskatzen du:

Parlamentuko Osoko Bilkurari aurkezturiko mozioa:

Zioen azalpena:

Iruñeko Udalak, bere Erregelamendu Organikoan, II. Kapituluaren, zeinak "Hiritarrei kontsultatzea" izena baitu, hauxe ezartzen du, zehazki, 69. artikuluan:

1.- Udalak herri kontsulta deitu ahal izango du hiritarrek hala eskaturik, behar den sinadura orria aurkeztuz eta hiritar horiek erroldan sarturik badaude, adinez nagusi badira eta haien kopurua Udaleko Hauteskunde Erroldakoen %10 baino gutxiago ez bada.

2.- Udalari dagokio behar diren izapideak egitea herri kontsulta egiteko, haren eskumeneko gaien gainean.

Erregelamendu horretan ezarritakoari helduz, Erreferendumaren aldeko Plataformak Iruñeko erroldan sarturikoak eta adinez nagusi diren 24.500 pertsonaren sinadurak bildu eta helarazi dizkio Udalari. Sinadura horiek Gazteluko Plazan lurpeko aparkaleku bat eraikitzeari buruzko erreferendum bat egitea eskatzen dute, halako leku esanguradun batean obra hori egiteak bertako hirigintzari ekartzen dion eraginaren ondorioz.

24.500 sinadura horiek Udaleko Erregelamendu Organikoak eskaturikoa baino askoz ehuneko handiagoa osatzen dute, ezagutzen den Udaleko Hauteskunde Errolda (erabili den azkena) 158.047 pertsonaz osatua baitago.

Iruñeko Udalaren gaur egungo existentzian ez da inoiz izan atzean hainbeste hiritar izan dituen eta haien sinadurekin pertsonalki babestuta egon den eskakizunik, eta, beraz, hauteskunde-programa guztietan agertu den herritarren parte-hartzea errealitate bihurtzeko horrelako aukera paregabe-rik.

Udalak aurtengo apirilaren 5ean eginiko Osoko Bilkuran, erreferendum bat egiteko herri-eskaera aintzat ez hartzea erabaki zuen, aldeko 16 boto eta aurkako 11rekin. Horretarako, honelako arrazoiak aipatu ziren:

- ...horretarako administrazio-izapidatze konplexua behar da...
- ...26 milioi pezetako kostua dauka...
- ...hiriaren osotasunean eragin handiago eta iraunkorragoa daukaten bestelako udal-ekimenak badaude...

Gure iritziz, udalaren erabaki hori udaleko herritarren parte-hartzearekiko orain arteko gutxiespenik handiena da, eta herritarrek erakun-

deekiko itxaropena nabarmen galtzea erakar dezake; izan ere, hizpide dugun jokabidea bezalakoetatik ondoriozta daiteke entzungor egiten diotela euren administratuen eskaera masibo bati eta ez dutela legedia errespetatzen.

Herritarren Plataforma horrek Justizia Auzitegietan aurkezturiko administrazioarekiko auzi errekursoaren emaitza zein den alde batera utzita (litekeena da epaia Udalaren hirigintza-jarduerak jadanik atzerabiderik ez duenean ematea), argi dago herritar guztientzat Udaleko Erregelamendu Organikoko artikulua horren asmoa Iruñeko gizon-emakumei eskubidea ematea dela, halako moldeez non, Udaleko Hauteskunde Erroldakoen %10ek eskatzen duenean, erreferendum bidez kontsulta egin beharko baitzaie.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hauek proposatu ditugu, Osoko Bilkuran eztabaida eta bozka daitezten:

1. Iritzi publikoari agertzea herritarren parte-hartzea udal demokrasiaren oinarritzko zutabeetako bat izatearen sinesmen osoa, eta, horregatik, erakunde eta organismo guztiei eskatzea hiritarrak euren hiriko bizi-kalitatea hobetzeko eragile aktiboak izatea ahalbidetzeko parte-hartze formak susta ditzaten.

2. Iruñeko Udala premiatzea Gazteluko Plazan lurpeko aparkaleku bat eraikitzeari herritarrek zer deritzoten jakiteko erreferendum bat egitearen aurkako erabakia berrazter dezan, herriaren aldarria eta erroldan sarturiko 24.500 pertsona adinez nagusik eginiko eskaera ikusirik.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 23an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kokaleku egokiagoren bat bila dezan egitekoa den espetxearentzako

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kokaleku egokiagoren bat bila dezan egitekoa den espetxearentzako".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Askotariko Parlamentuko Taldeko eledun Milagros Rubio Salvatierra andreak jarraian agertzen duen mozioa izapida dadila eskatzen du:

Parlamentuko Osoko Bilkurari aurkezturiko mozioa:

Zioen azalpena:

Berriki, hedabideen bitartez jakin ahal izan dugu Nafarroako Gobernuko arduradunek Nafarroako espetxe berria Izarbeibarren kokatzeko asmoa daukatela. Horrek aurkako jarrera hedatua eragin du eskualde horretako herritarrengan eta udaletan.

Gaur egungo espetheen aldekoak ez bagara ere, Nafarroako etorkizuneko espetxea errealtate bilakatuko denez gero, espetxe hori Iruñean kokatu behar dela deritzogu, zenbait arazoi direla-eta:

– Instalazio horrek urte asko daramatza Iruñean kokatuta; horregatik, ez da logikoa erantzukizun hori Foru Agindu bitartez beste herri batzuei pasatzea; bereziki, eragina jasanen duten herrien eta toki entitateen adostasuna izan gabe.

– Nafarroan populaziorik handiena duen hiria Iruña denez gero, logikoa da bertan kokatzea hizpide dugun instalazioa, preso senitartekoei espetxera bisita arruntak egitera joan ahal izatea errazteko.

– Espetxea Iruñean kokatuta egoteak presoentzat eskuragarriago egiten ditu zenbait zerbitzu publiko, hala nola osasuna, hezkuntza eta abar, horien beharra dagoen kasuetan.

– Espetxea Iruñetik kanpora kokatzeak kostu handia ekarriko lieke Foru Komunitateko finantzei, langileak, janariak, funtzionarioak, poliziak, anbulantziak eta abar garraiatzeko; horretaz gain, kostua ekarriko lieke presoen ahaideei, abokatuei eta abarri ere.

Halaber, eta espetxe berria aurki eraikitzekoa denez gero, logikoa dirudi Nafarroak, beste erki-dego batzuek bezalaxe, Katalunia kasu, Espetxe Politikaren arloan eskumen osoak eskuratzearantz jotzeak, horrela Nafarroak gai honetan dauzkan beharrezan hobeto egokituko zaien politika berekia ezarri ahal izateko.

Eskumen horiek, Nafarroan presoek kolektiboki dauzkan berezitasunak ikusirik, aipaturiko kolektibo horren gizarteratzearen beharrezan hobeto egokituriko politika bat taxutzea erraztuko lukete.

Hori guztia dela-eta, Biltzarreko Osoko Bilkuran honako erabaki proposamen hauek eztabaidatu eta bozkatzea proposatzen dut:

1. Nafarroako Gobernua premiatzea eginen den espetxerako kokaleku egokiago bat bila dezan Iruñeko udal-dermioan, eta horretarako Iruñeko Udalarekin adostasunera iristeko saia dadin.

2. Nafarroako Gobernua premiatzea Gobernu Zentralarekin batera beharrezkoak diren urratsak eman ditzan, espetxe-politikaren arloan eskumen osoak eskuratzearren.

3. Nafarroako Gobernua premiatzea eztabaida publiko bat egin dezan, Nafarroako presoek kolektiboaren gizarteratzea, integrazioa eta murriztea errazteko espetxe-politika bat gidatu behar duten oinarriko irizpideei buruz. Talde politikoek, presoek kolektiboari laguntzen diharduten adituen, elkarten eta fundazioen, sindikatuen eta aztergai dugun arazoarekin lotura duten arloetan lan egiten duten gainerako gizarte-agenteen iritzia kontuan hartu beharko lituzke eztabaida horrek.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 23an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da meningitisari buruzko informazio kanpainak egin ditzan

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da meningitisari buruzko informazio kanpainak egin ditzan”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osasun Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamaikiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, eztabaidatu eta onetsia izan dadin:

Zioen azalpena

Eritasun Infekziosoei buruzko Osasun Azterketa Zientifikoetarako Institutuak haurrengan eginiko azterlan baten arabera, gurasoen %80k meningitisa eritasun larriena dela jotzen dute, beste eritasun batzuen gainetik.

Guraso gehienek, alde handiz, euren seme-alabak txertatzea erabakitzen dute, eta haurtzaindegien %93 txertoak jartzearen aldekoak dira, eritasunei aurrea hartzeko txertoa existitzen den kasu guztietan.

Dena den, guraso eta hartzaindegi gehienak ez dira gai meningitis mota ezberdinak behar bezala identifikatzeko, eta, beraz, haurrak zein motatarako txertatuak dauden jakiteko.

Oinarrizko Osasun Laguntzako profesionalen eritasun horien norainokoa eta prebentzio-neurriak populazioari jakinarazteko egiten duten lan eskerga aintzat harturik ere, ezjakintasuna populazioaren zatirik handienean hedatua dagoela nabari daiteke.

Horregatik, beharrezko deritzogu gai honetan zeresana daukaten kolektibo guztiei informazioa helarazteko estrategiak taxutzeari, meningitisa

hobeto ezagutzeko. Horren ondorioz, honako erabaki-proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du informazio-kanpaina sakona egin dezan, gurasoei, ikastetxeei, gurasoen elkar-teei, hartzaindegiari eta hurrekin kontaktuan lan egiten duten langileei zuzendurikoa, Oinarrizko Osasun Laguntzako Sarea eta beharrezkotzat jotzen dituen bitartekoak erabiliz, meningitisarekin zerikusia daukan guztia argi azaltzeko (motak, prebentzioa, txertatze-irizpideak eta txerto-egutegia).

Iruñean, 2001eko maiatzaren 25ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari premiatzen da Gazteentzako sexu-hezkuntza eta -laguntzari buruzko eskualdeko plana egin dezan

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari premiatzen da Gazteentzako sexu-hezkuntza eta -laguntzari buruzko eskualdeko plana egin dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketak Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko Eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaida dadin. Mozioa Gazteen Sexualitatearen arloko Hezkuntza eta Laguntza emateari buruzko Eskualde Plan bat abiarazteari buruzkoa da.

Zioen azalpena

Nerabearoa eta gaztaroa pertsonen bizitzan aldaketa handiak gertatzen direneko garaia dira; aldaketa horiek eragina izaten dute etorkizunean. Epe horretan, sexualitateari dagozkion bizipenen ezaugarri nagusia egin daitekeenari edo egin ez daitekeenari buruzko nahasmendua da. Horrek, sexualitateari loturiko arriskuei buruzko ikuspegi eskasarekin batera, beldurra eta kontraesanak gailentzen direneko jokabideak erakartzen ditu askotan. Laburbilduz, esan genezake epe horretan trebetasunak falta izaten direla sexualitatea modu autonomoan, atseginez eta arriskurik gabe bizitzeko.

Urtero, 18.000 nerabe espainiar baino gehiago geratzen dira haurdun, kasurik gehienetan horrelakorik nahi ez badute ere. 15 urtetik 19ra bitarteko emakumeen haurdunaldien %39 norbere borondatezko abortuetan amaitzen dira. Datu horiek espainiar gazteek eta, beraz, Nafarroako nerabeei euren sexualitateari dagozkion erabakiak hartzeko garaian pairatzen duten egoerari buruzko gutxi gorabeherako ideia bat ematen digute; nola sufritzen duten gazte horiek nahi ez duten haurdunaldi bati hain gazte izanik aurre egin behar izaten diotenean, eta, hitz batean, arlo honetan dagoen prestakuntza eta informazio gabeziari buruzko ikuspegi bat ematen digute. Nahiz eta, LOGSEk esaten duenez, sexu-heziketak zeharreko prestakuntza izan behar duen oina-

rrizko hezkuntzatik aurrerako ikasketa guztietan, errealitatean prestakuntza horren aplikazioa ezbaian geratzen da zenbait kopuru kezkarriren berri izaten dugunean; adibidez, 16 eta 17 urteko nerabeen arteko harreman sexualen % 40tan inolako bitarteko antisorgailurik erabiltzen ez dela. Nafarroan, Emakumeari Laguntzeko Zentroetan, garai batean antolatatu ziren Nerabeentzako Sexu Heziketako programa gehienak kendu egin dira, eta horrek ondorioak ekarri ditu.

Horrela, gazteen haurdunaldi gogoz kontrakoek osasun- eta gizarte-ondorioak ekartzen dizkionte bikoteari: behartuta ezkontzea, eskola-garaia etetea, familiaren baitako arazoak, arazo ekonomikoak, emozionalak eta abar.

Aurrekoak bezain kezkarriak, edo are gehiago, dira sexu bidez transmitituriko eritasunei eta, zehazki, HIESari buruzko datuak. Izan ere, horixe da, trafiko-istripuekin batera, heriotza-kausarik garrantzitsuena Espainiako gazteen artean. Sexu bidez transmitituriko eritasunei dagokienez erakundeek bete beharreko prebentzio-eginkizunean izan den lasakeria dela-eta, mota horietako eritasunek gora egin dute berriro; bereziki, kontzientziazio-kanpainei esker behera egin zuteneko arrisku-kolektiboetan, drogazaleenean kasu, eta baita heterosexualeen artean eta, zehazki, gazteengan ere. Prebentzio-neurriak, zeinak kasu askotan harreman afektiboetarako oztopotzat jotzen baitira, ez erabiltzeak, eritasun horiek kutsatzeko abagunea sor dezake.

Praktikan, familiek larritasunez hartzen dituzte euren seme-alaba nerabeen sexualitate-bizipenak, eta hezkuntza, osasun eta zerbitzu sozialetako sistemek ez dute behar bezalako babesik ematen gazte eta nerabeek sexualitateaz era osasungarri eta gogobetegarrian gozatzea errazteko.

Azaldutako guztiarekin, esan dezakegu gure gizartearen ez zaiela behar bezalako erantzunik ematen ari gazteen sexualitate-bizipenei, eta haiei sexuaren arloan ematen zaien prestakuntzan eta informazioan asko hobetu beharra dago.

Horrela, bada, beharrezkoa da berehalakoan zenbait estrategia bultzatzea, haien bidez nerabeak eta gazteak sexualki aktiboak direla onartzea ahalbidetzeko, sexualitateari buruz daukaten informazio-maila hobetzeko, hura arriskurik gabe bizi ahal izan dezaten hezkuntzaren eta osasunlaguntzaren arloan beharrezkoak diren bitartekoak eskaintzeko eta gazte, familia eta profesionalen-

gan giza sexuaren errealitatearen aurrean jarrera positiboak sustatzeko.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak honako erabaki proposamen hau egin du:

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du

1. 2001eko bigarren sei hilabetekoan gazteak sexualitatearen arloan hezi eta zaintzeko eskualde plan bat egin eta Nafarroako Parlamentura igor dezala, bertan onesteko. Plan horrek, besteak beste, honako ekintza hauek agindu beharko ditu:

a) Gazteei buruzko azterlanak egitea, haien jarrerak, iritziak eta sexu-praktikak ezagutu ahal izateko.

b) Familien, gazteen eta gazteekin lanean diharduten profesionalen prestakuntza indartzea, sexualitatearen inguruan izan beharreko jokabideari eta horri loturiko arriskuen prebentzioari dagokienez.

c) Heziketa afektibo-sexualeko programak garatzea eskolako eta eskolaz kanpoko esparruetarako.

d) Esparru honetan diharduten erakundearen artean koordinatzeko egiturak eta prozedurak antolatzea.

e) Gazteei informazioa emateko sareak sustatzea, gazteek esparru afektibo/sexualeko laguntza, aholku-emate eta heziketari dagokienez dauken aukerak zeintzuk diren jakin ahal izateko eta euren ezagupenak hobetu ahal izateko.

f) Sexualitateari buruzko informazioa gehitzea eta helduei, gazteei eta haurrei zuzenduriko sentsibilizazio-kanpainak egitea; horretarako, argitalpenak egin eta jendearenganatuko dira.

g) Hezkuntza- eta informazio-materialak dituzten dokumentazio-funtsak sor daitezen bultzatzea. Bai gazteei bai profesionaleri zuzenduta egonen dira.

2. Emakumeari Laguntzeko Zentroetan nerabeentzako sexu heziketako programak ezar daitezela berriro. Programa horiek, nahitaez, sexualitateari buruzko ezagutza berariazkoak dauzkaten profesionalak irakatsi beharko dituzte.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 25ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da tutorearen figura arautu dezan MIR sistemaren barrenean prestatzen ari diren espezialistentzako

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da tutorearen figura arautu dezan MIR sistemaren barrenean prestatzen ari diren espezialistentzako".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osasun Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamaiki baino lehen.

Iruñean, 2001ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du. Mozioa Barneko Mediku Egoiliarren (MIR izeneko) sisteman prestatzen ari diren espezialisten tutoreen figurarako araubide berri bat ezartzeari buruzkoa da.

Zioen azalpena

MIR sistema hobetzeko xedearekin ados daude indar politiko guztiak, eta sistema horretan parte hartzen duten profesional guztiak denbora luzez eskatu dute hori; bai irakasle dihardutenek bai ikasle dihardutenek ere.

Prestakuntza-sistema horretan, prestatzen ari diren espezialisten tutorearen figurak gero eta garrantzi handiagoa hartu du, eta, horregatik, figura horrek hala bere helburuak nola tutoretza-lana egiten dutenen eskuetan ipintzen diren bitartekoak etengabe gaurkotzea eskatzen du. Halaber, eginiko lana ofizialki aitortzea ere beharrezkoa da, lanbidearen jarduneko beste esparru batzuetan jadanik egiten den bezalaxe.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

Prestatzen ari diren espezialisten tutorearen figura arautu dezan, besteak beste honako irizpide hauei jarraituz:

Lanaldiaren banaketa proportzionala ezartzea, esleituriko tutoretza-lanen arabera.

Tutoretzan jarduteko pizgarriak ematea, erantzukizun handiagoa eta lan-zamen arteko ezberdintasunak kontuan izanik.

Tutoretza-laneko jarduna lanbide-karreraren aitortzea, emandako zerbitzuak aitortuz eta horiek kasuan kasuko baremoetan islatuz.

Tutoreen prestakuntzarako sistemak ezartzea; oso bereziki, motibazio-, gainbegiratze- eta ebaluazio-teknikei dagokienez.

Zentroetako irakaskuntza-jarduerari berariaz atxikiriko giza, gauza eta ekonomi baliabideak gehitzea.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 25ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Mikel Larumbe” osasun ikerketarako beka berraztertu eta, gehienez ere hiru hileko epean, erabaki dezan beka hori nori eman

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Mikel Larumbe” osasun ikerketarako beka berraztertu eta, gehienez ere hiru hileko epean, erabaki dezan beka hori nori eman”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Mikel Larumbe beka emateari buruzkoa:

Zioen azalpena

Gobernuaren eta Nafarroako Alderdi Sozialistaren artean lehenagotik sinaturiko aurrekontu-akordioen ondorioz, Osasun Departamentuak

ematen dituen ikerketa-beken artean Mikel Larumbe oroitzeko beka bat sortzea erabaki zen. Beka horrek urtero izanen zuen aurrekontu-kontsignazioa, eta osasun-kudeaketaren esparruan aurkezturiko ikerketa-proiektuetara zuzendua egonen zen.

2000n, beka horretarako 6 milioi pezetako aurrekontu-kontusail bat kontsignatu zen, eta 480.000 pezetako beka bat eman zen.

2001erako, aurrekontuetan 1.000.000 pezetako kontusaila kontsignatu zen helburu horretarako.

2001ean, Nafarroako Departamentuak ematen dituen beka eman dira, eta lehen aipaturiko izena duen beka ez da eman.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1.- Bekak emateari buruzko erabakia berrazter dezan eta, gehienez ere hiru hilabeteko epean, “Mikel Larumbe” izena duen beka nori eman erabaki dadila.

2.- Aurrekoaren ezean, aipaturiko beka 2000n eta hurrengo urteetan Nafarroan eginiko ikerketan onenerako sari izateko eralda dadila.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 25ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

F saila:
GALDERAK

Oinarrizko Osasun Laguntzan “historia klinikoak” deiturikoak irekitzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 28an egindako bilkuran, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Oinarrizko Osasun Laguntzan “historia klinikoak” deiturikoak irekitzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasun Departamentuak idatziz erantzun dezan:

1.- Zein osasun etxetan ez zaio ekin historia klinikoa irekitzeko prozesuari?

2.- Oinarrizko Osasun Laguntzan zein sistema dago historia klinikoak nola betetzen diren ebaluatzeko?

Iruñean, 2001eko maiatzaren 24an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Norbanakoen osasun txartel kopuruari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 28an egindako bilkuran, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak norbanakoen osasun txartel kopuruari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Biltzarreko Erregelamenduak

xedatuaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Osasun Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

1.- Zenbat Norbanakoaren Osasun Txartel dago, mediku eta osasun-etxe bakoitzeko?

2.- Zenbat Norbanakoaren Osasun Txartel dago, batez beste, osasun-eskualde oinarrizko eta osasun-barruti bakoitzeko eta Nafarroa osoan, mediku bakoitzeko?

3.- Mediku bakoitzeko Norbanakoaren Osasun Txartela esleitzeko zer irizpide eta zer koefiziente aplikatzen dira?

Iruñean, 2001eko maiatzaren 24an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Babes ofizialeko etxebizitzaren moduluen prezioei buruzko zenbait konturi buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 28an egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak babes ofizialeko etxebizitzaren moduluen prezioei buruzko zenbait konturi buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

EA/PNV Parlamentuko Taldeari atxikiriko Eusko Alkartasunako Foru Parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Ingurumen, Etxebizitza eta Lurraldearen Antolamendu kontseilariari, idatziz erantzuteko:

Nafarroako Gobernuak bi argudio erabili ditu Etxebizitzari buruzko 1997-2000 urteetarako Planaren indarraldian babes ofizialeko etxebizitzarik kalifikatu ez izana justifikatzeko: etxebizitza-mota honen modularen prezioa merkatuaren errealitateari egokiturik ez egotea eta lurzorurik ez egotea.

2001 urte honetako ia bost hilabete oso igaro direnean, iraganeko joera zein neurritan aldatu den jakin nahi dugu.

1.- 2001eko lehen bost hilabete hauetan zein izan da higiezinaren merkatuaren erantzuna modularen prezioa aldatzearen aurrean?

2.- Zenbat etxebizitza aurkeztu dira kalifikatzeko?

3.- Zenbat kalifikatu dira?

4.- Zer-nolako joera nabari da, aurreko epearekin alderatuz?

Iruñean, 2001eko maiatzaren 25ean

Foru parlamentaria: José Mari Aierdi Fernández de Barrena

Goñibarreko parke eolikoa abian ez jartzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 28an egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Goñibarreko parke eolikoa abian ez jartzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

EA/PNV Parlamentuko Taldeari atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari José

María Aierdi Fernández de Barrena jaunak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Ingurumen, Etxebizitza eta Lurraldearen Antolamendu kontseilariari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak 1996ko ekainaren 16an eman zion hasierako onespina energia eolikoa ekoizteko azpiegiturei buruzko Plan Sektorialari.

Plan hori 1998ko martxoaren 23an aldatu zen, eta, besteak beste, Goñibarren 36,96 Mw-eko potentziako parke bat aurreikusten zuen, eta, halaber, instalatu beharreko 56 ekipo. Proiektu horri oniritzia eman zioten ukituriko toki entitateek, kudeatzeaz arduratu behar zen enpresak eta Nafarroako Gobernuak berak.

Proiektuaren aldeko jarrera hori Gurelur taldeak parke horren eta beste batzuen aurka eginiko alegazioari zure Departamentuak emandako erantzunean gauzatu zen.

1999ko ekainean egin zen eraginei buruzko azterlanak ez ditu parke horren eraginak larritzat jotzen ezein kasutan, alderantziz baizik, esan genezake: bateragarriak edo neurritzekoak jotzen ditu.

1.- Zer argudio dauzka orain zure Departamentuak parke eoliko horri dagokionez jarrera aldatzeko?

2.- Zer aldaketa izan ditu proiektuak 1998tik 2000ra bitartean, zure Departamentuak orain hura abiarazteari ezetza emateko?

3.- Departamentuak zer txosten edo azterlan, bereak edo besterenak, dauzka jarrera-aldaketa hori oinarritzeko?

Iruñean, 2001eko maiatzaren 25ean

Foru parlamentaria: José Mari Aierdi Fernández de Barrena

“Gestión Ambiental - Viveros y Repoblaciones” enpresak abeltzaintza-ustategien gainean eginiko azterketa lanari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

maiatzaren 28an egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak “Gestión Ambiental - Viveros y Repoblaciones” enpresak abeltzaintza-ustategien gainean eginiko azterketa lanari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

EA/PNV Parlamentuko Taldeari atxikiriko Eusko Alkartasunako Foru Parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Ingurumen, Etxebizitza eta Lurral-

dearen Antolamendu Kontseilariari, idatziz erantzuteko:

Berriki, gure taldeak, gure Komunitateko abeltzaintza-ustategi ugariaren egoera dela-eta kezkatuta, horri buruzko informazioa eskatu zion zure Departamentuari.

Eskaera horri zure Departamentuak emandako erantzuna tamalgarriztat baizik ezin dugu jo.

Horregatik, une honetan honako galdera hau egitera mugatuko gara.

1.- Zure Departamentuak edo Nekazaritza eta Abeltzaintza Departamentuak badauka ala ez dauka, aurtengo maiatzaren 10ean, “Gestión Ambiental – Viveros y Repoblaciones” enpresak gai horri buruz eginiko azterketa-lana?

Iruñean, 2001eko maiatzaren 25ean

Foru parlamentaria: José Mari Aierdi Fernández de Barrena

“Mikel Larumbe” osasun ikerketarako bekak ez emanari buruzko galdera*FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 28an egindako bilkuran, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak “Mikel Larumbe” osasun ikerketarako bekak ez emanari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak eskatu du Osasun Batzordean ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeari atxikiriko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordean ahoz erantzun daitezten:

Zioen azalpena

Gobernuaren eta Nafarroako Alderdi Sozialistaren artean aurrekontuetarako sinaturiko akordio- en ondorioz, Osasun Departamentuak ematen dituen ikerketa-beken artean Mikel Larumbe oroitze-ko beka bat sortzea erabaki zen. Beka horrek urtero izanen zuen aurrekontu-kontsignazioa, eta osasun-kudeaketaren esparruan aurkezturiko ikerketa-proiektuetara zuzendua egonen zen.

2000n, beka horretarako 6 milioi pezetako aurrekontu-kontusail bat kontsignatu zen, eta 480.000 pezetako beka bat eman zen.

2001ean, Nafarroako Departamentuak ematen dituen bekak eman dira, eta lehen aipaturiko izena duen beka ez da eman.

2001eko lehen hiruhilekoari dagokion aurrekontuaren betetze-egoerak agertzen duenez, Mikel Larumbe bekarako 542804 kontusailak hasieran zeukan 1.000.000 pezetako aurrekontu-kontsignaziotik 330.000 pezeta atera dira, eta 542803 kontusailak kopuru horren arabera aldaketa izan du. Horrela, bada, 542804 kontusail-lean 670.000 pezetako kopurua finkatua geratu da. Horietatik, 360.000 pezeta bete dira; hau da, aurrekontu finkatuaren %53,73.

Hori dela-eta, honako galdera hauek aurkeztu dira:

1.- Zergatik ez da eman Mikel Larumbe beka?

2.- Zergatik egin zaio 542804 kontusailari 330.000 pezetako aldaketa?

3.- Mikel Larumbe beka eman gabe geratu bada, zertarako erabili da 542804 kontusail-lean betetako 360.000 pezetako kopurua?

Iruñean, 2001eko maiatzaren 25ean

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

G Saila:

TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

“Inbentarioaren kudeaketa eta kontabilitate publikoa” izeneko sistema informatikoa esleitzeko proposamena

Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/98 Foru Legeko 97.3 artikulua ezarritakoa betez, jakinarazten da Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 14an hartutako Erabakiaren bidez, ondoko kontratua esleitu duela:

– Kontratuaren xedea: Nafarroako Parlamentuko “Inbentarioaren kudeaketa eta kontabilitate publikoa” izeneko sistema informatikoa eskurtzea.

– Adjudikazio modua eta prozedura: lehiaketa irekia, premiazko prozedura.

– Kontratuaren prezioa: 7.893.800 pezeta (BEZa barne).

– Kontratuaren epea: 2 hilabete.

– Esleipen hartzailea: Gestión de Servicios Integrales y Sistemas de Información, S.L. (SPAI).

Iruñean, 2001eko maiatzaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Nafarroako Foru Komunitateari buruzko inkesta orokorra egiteko laguntza teknikoaren zerbitzu bat esleitzeko proposamena

Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/98 Foru Legeko 97.3 artikulua ezarritakoa betez, jakinarazten da Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 14an hartutako Erabakiaren bidez, ondoko kontratua esleitu duela:

– Kontratuaren xedea: Nafarroako Foru Komunitateari buruzko inkesta orokorra egiteko laguntza teknikoaren zerbitzu bat kontratatzea.

– Adjudikazio modua eta prozedura: lehiaketa.

– Kontratuaren prezioa: 4.700.000 pezeta (BEZa barne).

– Kontratuaren epea: 2001eko urriaren 15a.

– Esleipen hartzailea: Centro de Investigación y Estudios Sociales (CIES), S.L.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.300 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--